

**ERABAKIA, 2018ko urriaren 2koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA Ikastetxe edo Zerbitzurako: F 249 Bibliotekako administrari laguntzailea lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa.-** Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2018ko uztailaren 30eko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Gerentearen erabakiaren bidez, 2018ko irailaren 21koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena.-** Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.-** Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).

- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena.-** Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Hirugarrena.-** Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).

**Laugarrena.-** Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa:** Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

**Bigarrena.-** Esleipena 2018ko urriaren 3ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

**Laugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena.-** Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2018ko urriaren 2an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché





## **I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA**

**2018/07/30**

---

<b>Esleipenduna:</b>	<b>RAQUEL BEGOÑA SANTOS DE LA HERA</b>
<b>Lanpostuaren izena:</b>	<b>Bibliotekako administrari laguntzailea</b>
<b>Lanaldia:</b>	<b>Arautua</b>
<b>Eref.:</b>	<b>F 249</b>
<b>Zenbatgarrena:</b>	<b>16</b>
<b>Maila:</b>	<b>17</b>
<b>Taldea:</b>	<b>D</b>
<b>Eskala:</b>	<b>Administrari laguntzailea</b>
<b>H.E.:</b>	<b>2; 1995ko urtarrilaren 31</b>
<b>Langunea:</b>	<b>BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA</b>
<b>Campus:</b>	<b>BIZKAIA</b>
<b>BE:</b>	
<b>Ondorio data:</b>	<b>2018ko urriaren 3a</b>

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU BETEKIZUNA - 2018ko uztailaren 30eko DEIALDIA

1652	F 249	Bibliotekako administrari laguntzailea										Hor. 16	HE 2.95/1	BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA																		
ADJ	DNI	DEITURAK. Izena	ORD	PUNT. GUZT.	ANTZIN		EMANDAKO		C- Taldea		L- Taldea		E & L- Talde		EHUn ZERB.		A- Taldea		L- Taldea		E & L- Talde		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.	HIZK.	EUSKARA		ELKAR.	
					Urteak	Punt.	ZERBITZUAK	GUZT.	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	G	<	Punt.	Puntos

c) Deitutako lanpostuaren beheragoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionarioak.

R	44977414V	LOPEZ LOREDO, INMACULADA		27,4500	23	10,35	11,60	59	5,90			215	5,00	274	10,90					7	0,70	7	0,70	16	-1	3,5	2,00		2	0	
ADJ	30568224M	SANTOS DE LA HERA, RAQUEL BEGOÑA		23,1000	26	11,7	8,40	29	2,90	5	0,50	286	5,00	320	8,40									15	-2	1	2,00		2	0	